ortzadar

larunbata, 2018ko uztailaren 14a. 555 zenbakia

deia.eus/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak



AZKUE BIBLIOTEKA

Bertako ondarea agerian jartzeko erakusketa birtual bat estreinatu du Euskaltzaindiak

-- 4-5. orrialdeak --

IAN NOSE

MARRAZKILARIA

“Komikien inguruan dena dago egiteko Euskal Herrian”

Oñatiko marrazkilariaren ‘Antxintxiketan: Lasterketa demokratikoa’ komikia Veneziako Bienalean dago ikusgai, irailaren 25era arte

ETXAHUN GONZALEZ

Ian Nose Veneziako Bienalean. IAN NOSE

IAN Nose izenaren atzean 1984 urtean Oñatin jaiotako Ioannes Busca dago. Arkitektura ikasketak egin zituen Madrilen, eta marrazkilaria eta diseinatzailea da egun. Madriletik Puerto Ricora lekualdatu zen eta Filadelfian bizi da orain. *Freelance* bezala lan egiten du han. Bere komikietako bat –*Antxintxiketan: Lasterketa demokratikoa*– Veneziako Bienalean dago ikusgai. Espainiako hauteskunde orokorren inguruan egindako komiki zinten bilduma da, Rajoy, Sanchez, Iglesias eta Rivera protagonista dituena.

Veneziako Arkitektura Bienalean ikusgai dago jadanik ‘Antxintxiketan: Lasterketa demokratikoa’ zure lana. Espainiako pabilioian ikusi daiteke, irailaren 25era arte. Nolatan?

Inaugurazioaren aurretik, Venezian egon nintzen aste batez, izan ere, komikiez aparte, bideo edizioan ere aritzen naiz eta pabilioiko ikus-entzunezkoarekin lanean jardun dut. Komikiak normalean euskaraz idazten ditut lehenbizi, eta gero gaztelania eta ingelesera itzultzen ditut, baina Atxu Amann aurtengo komisarioari ideia ona iruditu zitzaion euskarazko bertsioa erakustea, eta horrela jarri dugu irakurgai. Izugarrizko lana egin dute aurtengo komisarioek, 120 bat proiektu daude ikusgai eta nire komikia oso ondo geratu da narratibako gunean. Ilusioa handia egin dit komikia euskaraz erakutsi ahal izateak.

Jaso duzu ikusleen iritzirik?

Nire komikiak, euskaraz egoteaz aparte, politikari espainiarrei barre egiten die. Egun baten handik paseatzen zebilen Venezuelako kargu altu batek hauxe esan zidan: “Nola lortu duzue horrelako pabilioi bat egitea duzuen gobernu faxista izanda?”. Hori da jaso dudan *feedback*-ik onena.

Lehenengo aldia da euskaraz idatzitako komiki bat Espainiako pabilioian ikusgai jartzen dutela. Aitzindaria zara, beraz.

Meritua komisarioena da. Ausarta izan behar da horretarako; ez dakit berriz gertatuko den... Komiki bat arkitekturako bienalean kokatzea ez da gauza erreza, eta euskaraz are gutxiago. Baina ea hemendik aurrera gehiagotan ikusten den. Egia esan, ia ez da komikirik argitaratzen euskaraz eta pena handia da. *Komikipedia.eus* atariaren arabera iragan urtean 29 lan besterik ez ziren argitaratu euskaraz. Ahabi Comics-en izenpean nire komikiak argitaratzen hasi gara orain eta begira ari gara ea modurik dagoen, ume ginela gustatzen zitzaizkigun komikien eskubideak lortu eta euskaraz argitaratzeko. Izan ere, komikien inguruan dena dago egiteko Euskal Herrian.

Horrexegatik jarri zenuen martxan, anaiarekin batera, Laino Mehe komikizaleen ataria.

Euskarazko argitalpenen munduan dagoen komiki eskasiari aurre egiteko ez bada ere, noizbehinka gure komikigile gogokoenen atal bat edo beste itzuli eta euskal irakurleekin partekatzeko sortu genuen ataria. 2011ko martxoan eman genituen lehen urratsak, *Dragoi Bola* marrazki bizidunen ETBko euskarazko bertsioa jatorrizko komikira egokituz. Bat zetorrela ikustean, lehenengo bost atalak transkribatu eta *laino.me* izeneko web orrian eskegi genituen. Gure lagunen artean arrakasta izan zuten arren, ez zitzaigun egokia iruditu egileen eskubiderik izan gabe aurrera jarraitzea. Era egokian argitaratzeko pausoak ematen ahalegindu ginen eta ordutik horretan ari gara, baina tamalez ez dugu arrakastarik izan oraindik. Luzerako doan proiektua da.

‘Puerto Ricon ere egiten du euria’ komikia idatzi zenuen. Herrialde hau Maria urakanak astindu zuen eta bertan bizi izan zara zeu ere.

Bi hilabetez egon nintzen han eta urakana bertan bizitzea tokatu zitzaidan. Filadelfiara etorri ginen gero emaztea, katua eta hirurok, eta Gabonetan lagun bat etorri zitzaigun bisitan. Erakusketa bat antolatzen zebilen *skate*-aren inguruan, *FASST!* Erakusketa, hain zuzen ere, eta parte hartu nahi nuen galdetu zidan. Baneukan gogoa Puerto Ricoko urakaneko bizipenen bat edo beste kontatzeko eta animatu nintzen. Ez dut argazkirik erabili historia marrazterakoan, buruan geratu zaizkidan irudiak saiatu naiz komikian erakusten eta horregatik ez dira oso errealistak. Asko hobetu beharra daukat oraindik.

Orain Filadelfian bizi zara.

Bai. *Freelance* bezala lan egiten dut, nire kontura. Bienala eta gero nire proiektuak aurrera ateratzeko denbora hartuko dut, gauza zaharrak webgunera igo, komiki gehiago marrazten jarraitu eta bestelako proiektu berriak nola aurrera atera pentsatzeko. Filadelfian oso gustura gaude, dena oinez egin genezake eta hori Amerikan ez da gauza erreza. Puerto Ricon kotxea ezinbestekoa zitzaigun denerako eta hona ekarri ere ez dugu egin. Oinez eta bizikletaz joaten gara leku guztietara.

Ian Noseren lanak jarraitzeko:

Instagram: Iannose
Twitter: @IanNose
Facebook: IanNoseChronology

Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Juan Jose Baños
Koordinazioa: Julene Larrañaga
Diseinua: Jesus Santamaria

Azala: Euskaltzaindia
Maketazioa: Janire Neches
Lege Gordailua: BI 1720-06

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

IBERDROLA

IRITZIA

IBAN ZALDUA

Literatura eta memoria

AZKEN aldi honetan maiz galdetzen digute, idazleoi, ea zer rol bete behar duen literaturak, ETAren osteko panoraman, Euskal Gatazka delakoaren memoriaren eraikuntzan. Nik askotan esan dut niretzat, irakurle eta herritar bezala, oso baliagarriak izan zitzaizkidala, laurogeita hamarreko hamarraldian, "gaiaren" inguruko zenbait lanen irakurketak, hala nola *Gizona bere bakardadean, Hamaika pauso, Kontaktua* edo *Joan zaretenean* bezalakoenak. Begirada pausatuagoa, ñabartuagoa, pertsonalizatuagoa eskaini zidaten arazoaren gainean, kazetaritza kronikek edo analisi politikoek nekez eman ziezadaketena.

Zer zuten amankomunean, bestalde, horren ezberdinak diruditen lan horiek? Nire ustez, eta atzetik izan zezaketen jarrera politikoa edo etikoa gora-behera, batez ere helburu artistiko batekin sortutako eta garatutako obrak zirela. Haien nahia ez zen inor konbentzitzea, are gutxiago inor bere jarreretan berrestea: fikzio horien zio nagusia, Kunderak defendatuko lukeen bezala, galderak planteatzea zen. Ana Malagonek bikain azaldu bezala: "Artean ez dago zergatik funtzio bat bete behar, nire ustez. Ez dut esaten betetzen ez denik, betebeharra ez dagoela bere definizioan soilik. Funtzioa ondorio da. Eta ondo dago horrela. Utilitarismoaren garai hauetan ezertarako balio ez duten gauzek ez dute prentsa ona, baina maiz pentsatzen dut ezertarako balio ez izateak zerbaiti gerta dakiokeen gauzarik baliogarriena dela. Okerragoa dela funtzio bat bete nahi eta ezin izatea. Eta are okerragoa, okerreko funtzioa betetzea".

Eta horixe da niri arriskutsua iruditzen zaidana literatura, memoria eta gatazka bezalako hitzak elkartzen direnean: ez dakidala berez inutila den gauza bati, literatura bezala, ez ote zaion misio bat ezarri nahi, zeinarekin literaturak izan dezakeen erabilgarritasun bera kolokan jartzen baitugu, paradoxikoki. Garaipena, Derrota, Justizia, Bakea, Adiskidetzea, Aberrigintza... bezalako kontzeptuetatik abiatzen garenean, obra bat eraikitzeko orduan, emaitzak, askotan, ez direlako helburuen mailakoak.

Ez dut esan nahi literatura baliagarria ez denik. Baina susmoa daukat literatura baliagarriagoa dela, ikuspuntu sozialetik edo politikotik, abiapuntu gisa baliagarri izaten saiatzen ez denean.

> Ez dut esan nahi literatura baliagarria ez denik. Baina susmoa daukat literatura baliagarriagoa dela abiapuntu gisa baliagarri izaten saiatzen ez denean

Ez dakit hemendik aurrera hobera egingo duen, optimistek aldarrikatzen duten bezala, euskal gatazkaren inguruko fikzioak. Ez dut uste exijentziarik ezar dakiokeenik: exijentzia bakarra, erakundeei eta horretaz arduratzen diren elkarteei, memoria zuzena berreskuratzearena izan beharko litzateke; orain arte, beldurragatik edo bestelako arrazoiengatik, kontatu ez den hori guztiarena. Horretan bai egingo dugula, seguru, aurrera. Fikzioaren kalitatean, ikusiko dugu. Orain arte alor horretan egin dena ahaztu gabe, betiere.

Nik ere Angel Erroren hitzekin bat egiten dut, alde horretatik: "Errelatoa da hitz bat azkenaldian askotan aipatzen dutena. ETAk agiri bat atera du eta iragana garbitzeko edo, hitzez hitz, *errelatoa irabazteko* saioa dela hasi dira batzuk. Bitxia egiten zait kontakizun hitza testuinguru horretan eta batez ere aditz horiekin. Idatz dezagun, behar luke orain leloa, ezer ez irabazteko, iragana lohitzeko, memoriak min emateraino".

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Gerezi garaia**
Mikel Santos "Belatz". Txalaparta.
2. **Zubigileak**
Alfonso Zapico. Astiberri.
3. **Bihotz handiegia**
Eider Rodriguez. Susa.
4. **Tximeletak bizkarrean**
Ugaitz Agirre. Susa.
5. **Gaur galtzea...**
Gotzon Hermosilla. Elkar.
6. **Maitatu zure egunak**
Pako Aristi. Erein.

Ez Fikzioa

1. **Alardeak, ukatutako plazara**
M. Asensio, A. Iraola. Elkar.
2. **Euskal grafia (1966-2015)**
Tomas Hernandez. Erein.
3. **Zuloa**
Xabier Gantzarain. Elkar.
4. **Genero nahasmendua**
Judith Butler. Elkar.
5. **Lurraldea eta herria**
Eneko Bidegain. Pamiela.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

SAIAKERA

'Eneko Irigaray, aljeliar konexioa'

Joxean Agirre. Txalaparta. 129 orr. 15,80 euro.

ETAren sortzaile baten ibilerak

1936an jaio zen Eneko Irigaray, ETAren sortzaileen taldean gazteena, eta atipikoena ere bai, seguru asko. Iniziatiba handikoa, marxista goiztiarra eta heterodoxo samarra, ez zuten inoiz atxilotu; ez zuen espetxerik zapaldu, eta 1961ean erabaki zuen muga igarotzea. 1965eko martxoan iritsi ziren Aljerrera, Julen Madariagarekin, ihesi, Frantziako estatutik kanporatu eta sei hilabeteko espetxe zigorra jaso ondoren, eta han eman zituen ondorengo hamaika urteak, ETAren ordezkaritzaren kargu. Joxean Agirreren azken liburuak ETAren sortzaileetako baten ibilerak kontatzen ditu.

LITERATURA

'Epailea eta haren borreroa'

Friedrich Dürrenmatt, itz.: Idoia Santamaria. Ereinlgela. 152 orr. 12 euro.

Ezhoiko eleberri beltza

'Epailea eta haren borreroa', nobela beltz asko bezala, hilotz batekin hasten da. Baina badu ezaugarri bat nobela beltz ohikoetatik bereizten duena: ustez istorio nagusia dirudienari –hilketa bera eta hilketa argitzeko prozesua– beste istorio batek hartuko dio gaina, nobelak aurrera egin ahala. Bada, bestalde, auzi funtsezko bat eleberri honetan: ongiaren eta gaizkiaren arteko muga lausoa, pertsonaia zintzoen eta gaiztoen arteko bereizkuntza garbirik eza. Suitzan gertatzen dira nobelako pasadizo guztiak, 1948an, Bieleko aintziraren inguruko herrixketan eta Berna hirian.

ZALDI EROA

Euskararen iragana orainera ekarria

Azkue Bibliotekako ondarea ezagutarazteko asmoz, **Euskaltzaindiak** bere katalogoko sei liburu aukeratu ditu sortu duen erakusketa birtualerako. Joanes Leizarraga eta Manuel Larramendiren obren ezaugarri eta bitxikeriak batzen ditu, besteak beste

AINHOA LORES



EUSKARA eta euskal kulturari buruzkoak dira, batez ere, Euskaltzaindiaren funtsak. Gaur egun, Azkue Biblioteka eta Artxiboa Bilboko egoitza nagusian dago eta bere katalogoa sarearen bidez ere kontsultatu daiteke. Akademiak, hala ere, beste aurrerapauso bat eman nahi izan du eta, bere ondarea hobeto ezagutarazteko asmoz, erakusketa birtuala martxan jarri du. Joanes Leizarragaren *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria* (1571) eta Silvain Pouvreau-ren *Gudu espirituala* (1665) dira, besteak beste, ikusgai dauden liburuak. Guztira, sei.

Erakusketak ez ditu liburu hauek bere osotasunean jasotzen, haien bitxikeriak eta ezaugarriak baizik. "Modu birtual batean, jendeari bertan dagoena erakutsi eta horren ezagupidea erraztu" nahi izan dutela aurreratu du Andres Urrutia euskaltzainburu eta Biblioteka eta Artxiboko buruak. Euskararen historian garrantzia izan duten liburuak dira batu dituztenak eta, horretarako, Bibliotekako edukien alderdi deigarrienak aukeratu dituzte: "erakusketak biltzen dituen liburuak gaur egun nabarmentzekoak direlako egin dugu hasierako hautaketa hau. Bertan, Humboldt, Larramendi, Unamuno, Lizarraga... daude. Egile hauek, azken batean, euskara eta Euskal Herriaren termometroa ematen digute aldi eta garai desberdinetan. Publiko zabal batengana jo nahi badugu, honelako ahaleginak egin behar ditugu", uste du Urrutiak.

Erakusketa birtualera sartu eta Joanes Leizarragaren *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria* (1571) da ikusgai dagoen lehenengo obra. Euskal liburuen artean, ospetsuena da honakoa, hasiera batean eragin handirik izan ez bazuen ere. Liburuak erreforma protestantea du ardatz, baina garai hartan euskaldunek ez zuten protestante bihurtzeko aldekotasun handirik erakutsi eta lanak, momentu horretan, ez zuen eragin handirik izan. Urrutiaren arabera, obra honen ospeak hainbat arrazoiri erantzuten dio: "sasoi hartako egoera politikoa, nortasuna eta Biblia bera izatea". Izan ere, Bibliaren berpizkundearen garaian obra honen itzulpenek garrantzi handia izan zuten, "herri bakoitzak bere hizkuntzan zuen testamentua eta, hala ere, euskarak ez zuen estatus ofiziala lortu, baldintza linguistikoak betetzen zituen arren". Euskaltzainburuaren ustez, baldintza politiko eta ekonomikoa falta izan ziren.

Mende bat aurrera egin eta Silvain Pouvreauren (*Combattimento spirituale) Gudu espirituala* (1665) da erakusketan ikusgai dagoen bigarren liburua. Berez, Lorenzo Scupolik idatzi zuen italieraz eta Europako hainbat herrialdetan arrakasta handia lortu zuen, edizio mordoa izan zuen berehala eta hizkuntza askotara itzuli zen, baita euskarara ere. Sasoi honetako *best seller* izan zen eta arrakasta jarraitua izan zuen mendez mende.

Euskararen historian, XVII. mendean kontrarreformaren itzalpean agertzen diren liburu euskaldunak oso garrantzitsuak direlako aukeratu du Akademiak obra hau. "Garai horretan, euskara bera doitzen eta gaitzen duen edozein gai landu ahal izateko, euskal prosa mamitu, gauzatu eta gorpuztu egin zen, erlijioaren inguruan bazen ere", azaldu du Urrutiak. "Une horretan, euskarak berak bere gorputza, indarra eta espresibitatea hartu zituen eta horregatik aukeratu nahi izan dugu orduko *best seller* hau".

IRUÑEKO JATORRIZKO EUSKARAN Scupolirena ez da erakusketan erlijioa ardatz duen liburu bakarra, ildo beretik doa Joakin Lizarragaren *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiak* (1846). Baina obra hau benetako harribitxia da, gaur egun, praktikan desagertua dagoen Iruñeko jatorrizko euskaran argitaratutako liburu bakarra delako. "Nafarroako euskalduntasunaren seinalea da –dio Urrutiak–. Euskararen presentzia gaur egun euskaldunak ez diren lurraldeetan zalantzan jartzen denean, hemen dago testigantza bizi-bizia. Apezak berak bere sermoiak euskaraz egiten zituen, herriak testu horiek euskaraz hartzen zituelako. Egileak berebiziko ahalegina egin zuen herriari euskara jaso batean sermoia transmititzeko. Eredu ezin hobea da".

Laugarren liburuak, Frai Bartolome de Santa Teresak ondutako lanak *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* (1916) du izenburua. Bizkaierazko hasierako prosaren barruan kokatzen du Urrutiak. Garai jakin bateko giroa eta kontrol sozialak, batez ere moral katolikoaren aldetik, nolakoak ziren erakusten du liburuak. Hala ere, euskaltzainburuak azpimarratu duenez, "hizkuntza bera da transmisorea eta orduko eduki horiek euskararen bizitasuna erakusten dute".



Lerroon gainean, Andres Urrutia euskaltzainbur

Manuel Larramendiren *De la antiguedad, y universalidad del bascuenze en España: de sus perfecciones, y ventajas sobre otras muchas lenguas* (1728) eta *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada* (1729) liburuak ere biltzen ditu erakusketak. Aurrenekoa euskararen apologia bat da, defentsa bat, gure hizkuntzak jasotzen zituen eraso eta gutxiespenen aurrean. Bigarrena, berriz, euskararen lehen gramatika da. Larramendik Hego Euskal Herrian, batez ere, bide bat markatu

Frai Bartolome de Santa Teresak ondu zuen 'Euskal-errijetako olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba'.

Joanes Leizarragaren 'Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria' liburuak erreforma protestantea du ardatz.

Manuel Larramendiren bi lan ere jasotzen ditu erakusketa birtualak, biak euskarari lotuak, bakoitza bere erara.



ua; Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar, 'Euskararen Herri Hizkeraren Atlasa'-ren teknikariak; eta, azkenik, Pruden Gartzia liburuzaina. EUSKALTZAINDIA

du, gerora jarraitu izan dena XX. mendera arte.

Bildumako seigarren lana *Bocetos de un viaje a través del País Vasco* da eta honen atzean bi pertsonaia daude, kontrajarriak direnak: Guillermo Humboldt eta Miguel de Unamuno. Alemaniako intelektuala Euskal Herrira etorri zen XIX. mendearen hasieran, euskaldunez miretsita geratu eta leku zentrala eman zien bere hausnarketetan, gehienak alemanez. Horregatik, hemen zirkulazio txikia izan zuten bere lanek. Unamunok hartu zuen gerora bere testuetako bat euskaratzeko ardura eta *Euskal-Erria: revista bascongada* aldizkarian argitaratu zuen, atalka. Euskararekin maiteminduta zegoen bilbotar idazlea hasiera batean, baina Urrutiaren arabera, azkenean euskara bera baztertu zuen, gaztelaniaren alderako. "Humboldt-ek euskara Europako hizkuntzatzat zuen bitartean, Unamunok euskararekiko kritikotasuna agertu zuen, ez zuen ikusten hizkuntza modernoa zenik", Urrutiaren esanetan.

EUSKAL LETREN ZERTZELADAK Webgunearen bitartez, eta begirada arin baten bidez, ikusleak obra hauen ideia bat hartzea da Akademiaren asmoa, euskal letren historiaren aldetik zertzelada batzuk ematea. Euskaltzaindian uste dutelako bide horren bitartez, euskara eta euskal kulturaren zabalkundean ere eragin daitekeela eta hori da euren filosofia: "gure altxorrak diren horiek neurri batean gizarteratzea, kaleratzea, jendeak ikus dezan euskal kultura aberatsa dela", nabarmendu du Urrutiak. Orain arte, Azkue Biblioteka eta Artxiboaren erabiltzailearen profila adituarena izan da eta Akademiak beste publiko mota batera zabaldu nahi du bere ondarea ekimen honekin. "Edonoren zereginetan balio dezan, aditu batenak izan, pertsona arrunt batenak izan edo jaki-nahiaz gure Bibliotekara hurbiltzen denarena izan".

Ia mende bat atzera egin behar da, 1919 urtera hain justu, oraindik Resurreccion Maria Azkue bizirik zegoela, Euskaltzaindiaren bibliotekaren hastapena ezagutzeko. Lehen dohaintza garrantzitsua Lekeitioko euskaltzainburuarena izan zen. "Denboraren joan-etorrian, euskaltzain batzuk hil dira, beste pertsona batzuk, aldiz, Akademiara hurbildu dira eta apurka euren dokumentuak eta agiriak batuz, multzo polit bat sortu dugu", eman du jakitera Urrutiak. Bestalde, aipatu duenez, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuzaren ondare bibliografiko eta artxibistikoa ere gordetzen du Akademiak 2008az geroztik, Euskaltzaindiak eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak elkarlanerako hitzarmena sinatu ondoren.

KATALOGOA SAREAN Duela hiru urte, berriz, teknologia berrietara hurbiltzeko beste pausu bat eman zuen Akademiak eta ondarearen katalogoa sarean jartzea erabaki zuen. Euskaltzainburuaren ustez, harrera bikaina izan zuen ekimenak, batez ere, "jende xehearen eta adituen eskuetan jarri genuelako euskal jendeak zeukan hainbat informazio, Azkueri buruzko gutunak, argazkiak... esate baterako, hor daude, guztion eskura, klik batera. Bide horretatik jarraitu behar dugu eta bide horretan haratago joateko asmo sendoa ere badaukagu, hori gaur egun ezinbestekoa delako Euskaltzaindiarentzat, guk nahi badugu Akademia moduan euskara eta euskal kultura bultzatu eta euskararen inguruko jakituria gizarteratu, horrelako teknologia berriak erabili behar ditugu, ez daukagu beste irtenbiderik. Irtenbide hori polita, esanguratsua eta onuragarria da euskal kulturarentzat eta baita Akademiarentzat ere.

Erakusketa birtualari dagokionez, oraingoz sei liburu hauek osatzen dute, baina Akademian asmoa dute hilean liburu berri bat gehitzeko. Urrutiak dioenez, hori da euren erronka: "Ikusiko dugu helburu hori betetzeko gauza garen, oraingoz liburuekin ari gara, baina beharbada bestelako agiriak ere sartuko ditugu. Ahalik eta modurik azkarrenean, erosoenean eta zabalenean euskal jendeari euskaraz ondutako material horiek eskaintzea da gure xedea". Horrekin batera, aipatzekoa da Euskaltzaindiak webgune berria izango duela urritik aurrera eta, Urrutiak aurreratu duenez, erakusketa birtualak zati esanguratsu bat izango du bertan.

Joakin Lizarragaren 'Urteco igande guztietarako platicac edo itzaldiak' Iruñeko jatorrizko euskaran idatzita dago.

Guillermo Humboldt eta Miguel de Unamuno daude 'Bocetos de un viaje a través del País Vasco' lanaren atzean.

Silvain Pouvreau-ren 'Combattimento spirituale ('Gudu espirituala, 1965), 'best seller' izan zen bere garaian.

Montevideoko igandeak

Munduko lehenengo Futbol Kopa jaso zuten José Nasazzi euskaldun-italiarraren eskuak Legegintza Jauregia egin zutenetako batzuk izan ziren. **Uruguay** migrazioak eta futbolak egindako nazioa da

DANIEL BURGUI
(Artez-ek itzulita)

URUGUAYKO hiriburuaren ezaugarrietako bat erabateko patxada da; egunero jaieguna dela ematen du. Montevideoko herritarrak ez doaz presaka, beti paseoan dabiltzala esan liteke. Ez dira estresatzen. Aztoratu gabe dabiltza, metalezko lastotxoekin hartzen duten *yerba-mate* edaria lagun. Uruguaitarrek eguneroko jarduerak esku bakarrarekin egiten ikasi dute; bestean beti baitaukate infusioz beteriko pitxartxoa.

Bertako biztanle gehienak (hiru milioi) Montevideon bizi dira; hala ere, egun askotan kale eta etorbide luzeak erdi hutsik egoten dira, ez da ia trafikorik egoten. Kontu batek soilik astin dezake herrialdea; herritarrak korrika hasten dira leku batetik bestera, kaleak jendez gainezka egoten dira eta ezin izaten da ia ibili, autoen klaxonak joka hasten dira, jendea oihuka eta zarataka... Futbola da hori sortzen duena.

Honen esanahiaz jabetzeko, 1930eko ekainaren 13ko arratsaldeko hirurak eta hemeretzi minutu zirenean hasi behar dugu historia kontatzen. Igandea zen. Egun hartan, Lucien Laurent futbolari frantsesak munduko lehenengo futbol txapelketetako lehenengo gola sartu zuen. Mexikoko selekzioko atearen sareetara bota zuen baloia. Arratsalde lasaia zen Montevideon. Gol horrek herrialde oso baten nortasuna baldintzatu duen historia bati hasiera eman zion. 4.400 ikusle soilik izan ziren, ordea, lehenengo arrakasta haren lekuko zuzen.

Munduko lehenengo futbol txapelketa jokatu behar zen estadioa bukatu gabe zegoen artean: Apur bat lehenago Montevideon izandako eurite gogorrek Centenario estadioa amaitzea eragotzi zuten. Beraz, txapelketako partidetako batzuk beste esparru txikiago batzuetan egin behar izan ziren inaugurazio egunera arte, hala nola Pocitoseko hartan. Mende erdi baino zerbait gehiago pasata, 1983ko uztailaren 18an, Centenario estadioa futbolaren Monumentu Historiko izendatu zuten. Ezaugarri hori duen munduko eraikin bakarra da. Centenario estadioaren obra harrigarri eta modernoa langile etorkin batzuek eraiki zuten, 9 hilabetetan. Errekor bat. Horrela egin da ia dena herrialde honetan: Uruguay eta bertakoen nortasuna futbol egunen bidez landutakoa izan da. Eta migratzaileen bidez.

Uruguaik futbolarekiko daukan pasioa benetan harrigarria da. Ezerk astindu badezake Montevideo bere hiriburuko lasaitasuna, hori futbola da. Irudietan, zaletuak Uruguaiko selekzioaren garaipen bat ospatzen, hiriko kaleetan.
DANIEL BURGUI

1930ean Munduko lehenengo Futbol txapelketako Kopa jaso zuen Uruguayko selekzioko kapitaina José Nasazzi Yarza izan zen, eta bera dugu adibide on bat. Giuseppe Nasazzi italiarraren eta María Jacinta Yarza, euskaldunen alaba zen uruguaitarraren semea. Nasazzi izan da Uruguayko historiako futbolari maitatuena. Bere garaipen-zerrendan hainbat konkista daude: urrezko dominak 1924 eta 1928ko Joko Olinpikoetan; 1930ko Munduko Kopa; eta Amerika Kopa 1923, 1924, 1926 eta 1935ean. Nasazzi buru zuen talde hura orduko herrialdearen ordezkaritza harrigarri bat zen: Ilusioz betetako futbol zale talde bat, besterik ez. Hori bai, hain onak ziren, beren arerioetako batzuk barregarri utzi zituzten, beste selekzio nazional batzuengan susmo txarrak sortu zituzten eta FIFA zuzendari batzuek salatu ere egin zituzten.

Horrela, uruguaitarrek beren benetako lanbide eta jatorrien berri eman behar izan zuten.Honakoak ziren lehenengo Munduko futbol txapelketa irabazi zuten gizonak: Alfredo Ghierra, arotza; Arispe, Tomassina eta Uriarte, hozkailu langileak; Pedro Petrone, Nekazaritza Merkatuko langilea; José Naya, dendaria; Somma, barazki-saltzailea; Pedro Cea, izotz-banatzailea Cervecería Uruguaya lantegian; Pepe Vidal, beira-fabrika bateko langilea; Zibechi, funtzionarioa Banco de Seguros delakoan; Saldonbide, Banco Hipotecario bankuko langilea, Ángel Romano, funtzionarioa. Eta kapitaina, José Nasazzi Yarza, Capurro auzoko marmol-lantegi bateko langilea. Zehazki, erdi euskaldun-erdi italiarra zen gizon horrek, orduan ia mutiko bat baino ez zena, Uruguayko Legegintza Jauregiko Fatxada estaltzeko erabilitako marmola zizelkatu eta leundu zuen.

Hegoamerikako nazio txiki honek futbolarekiko daukan pasioa guztiz ezohikoa da. Laurent frantsesak lehenengo tantoa egin zuen leku horretan jada ez dago ez estadiorik, ez futbol-zelairik. 1940 eraitsi ziren. Baina Héctor Enrique Benech bertako arkitektoaren interesari esker, 2006tik, markatuta dago lehenengo gol hura bota zen leku zehatza, General Rivera etorbidetik gertu. Apur bat aurrerago, eskultura baten bidez irudikatu da atearen zati bat, baloia sartu zen eskuadra.

Ordutik, Montevideon beti da igandea. Eta Nasazzik, brillantinaz orraztutako ilea zeukan mutiko hark, tango dantzariaren nolabaiteko itxurarekin, italiar jauntxo eta baserritar indartsuaren arteko zerbait zena, etorkinen familia xume bateko semea, uruguaitarren munduikuskera sortu zuen egun hartan. Gaur arte.

E3-aren itzaleko perlak

Duela gutxi ospatu den E3 azokan hainbat bideo-joko aurkeztu dira. Oraingoan, baina, zita garrantzitsu horretan bigarren plano batean gelditu diren jokoei erreparatuko diegu

IKER BELLIDO
(www.gamerauntsia.eus)

TWO Point Studios estudioak *Two Point Hospital* aurkeztu zuen PC Gamming Show-ean, ekainaren 12tik 14ra ospatu zen E3 azokaren barruan. *Theme Hospital* joko klasikoa garatzean lortutako esperientzian oinarrituz sortu da, izatez konpainiaren fundatzaileetako bi *Theme Hospital*-en garatzaile izan ziren eta. Beraz, estilo berbereko joko berri bat sortu dute. *Theme Hospital*-en gertatzen zen bezala, oinarritik hasi beharko gara jendea sendatzen, hobekuntzak egiten, saguak akabatzen eta mila gauza gehiago egiten, ospitale onena lortu arte. Steam plataforman aurkitu dezakegu jada eta urte honetan aterako da jokoa. Indie jokoak gustuko badituzue, hau zuen jokoa izango da.

IGN-ek Creative Assembly-ren *Total War Three Kingdoms* jokoa erakutsi zuen E3aren baitan. 200. urte inguruan kokatzen da eta Txinaren historian murgiltzen gaitu, hiru erreinuen arteko gudetan. Betiko helburuarekin dator, baina mekanika berriak sartuz. Besteak beste, jeneralen arteko erronkak nola sartu dituzten nabarmentzen da. Erronkak jeneral bat hil arte ez dira amaitzen eta borrokan ezin dira soldaduak sartu geldiarazteko asmoz. Saga honetan gertatu ohi den bezala, mapak mimo handiz zainduak daude, erakutsitako bideoetan ikus dezakegun bezala. IGN-ren *Best of E3* saria lortu du jokoak, beste batzuen artean. 2019ko udaberrian izango dugu gure ordenagailuetan jokoaz gozatzeko aukera.

Final Fantasy Tactics-en antzeko jokoak faltan botatzen badituzue, aurtengo E3-a zuentzako izan da. Microsoft-en eskutik *Tactics* joko berri bat datorkigu: *Gears of War Tactics*. Estrategia ukitu bat eman diote *Gears of War* sagari, Xcom-en gertatzen den antzera. Joko hau lehen *Gear of War* jokoaren garaian kokatu dute. Xcom-en bezala, eskuadroi bat erabiltzen da eta hau guztiz pertsonalizatzeko aukera dago. Estrategia jokoa izanda, txandakako borrokak ezin dira falta eta, hori gutxi ez balitz, *Gears of War* jokoaren anbientazio guztiarekin: armak, izakiak, lekuak...

Baina joko guztietatik beharbada gehien harritu gaituena *Ghost of Tsushima* izan zen. Sonyk aurkeztu zuen jokoa bere konferentzian. 1274.urtean Japonian, konkretuki Tsusima irlan, oinarritutako jokoa da. Bertan, Samurai baten rola hartu beharko dugu eta Japonia mongoliar inbasiotik babestu gure abileziaz. Mundu ireki bat, katanak, ninjak, samuraiak... zer gehiago eska daiteke? Playstation 4-rako aterako den jokoa da, jokalari batentzat eta, esan bezala, mundu ireki batean oinarritua. Gainera, ez dira ikusiko norabide-markak, honek askatasun sentsazio gehiago emango digu, baina zailtasuna ere areagotuko du. Grafikoki, paisaiak mimoz zainduak egin direla nabari da. Jokoaren argitaratze-datari buruz datu konkreturik eman ez bazuten ere, laster gure artean izatea espero dugu.

Beraz, jendea sendatzea gustuko baduzu, sekulako armadak gidatu, beste munduko izakiak akabatu edota katanarekin zure lurra defendatu, hauek izan daitezke 2019. urterako zure jokoak. Baina zure gustuekin bat ez badatoz, gogoratu beste hainbat joko izango ditugula urtean zehar: *Spyro, Fifa, Battlefield* etab. Orain jokoak heltzera itxarotea besterik ez zaigu falta.

Nobedadeak:

'Captain Toad: Treasure Tracker'

WiiU-rako atera zen joko honen Switch-erako bertsioa. Plataforma eta puzzleak ditu oinarri. Helburua, berriz, amaierara heltzea ikuspuntu guztiak kontuan izanik. Oso joko entretenigarria eta ona. (Switch).

'Earth Fall'

Lurra estralurtarrak hartuta dago, eta beste hiru lagunekin batera Amerika mendebaldeko kostaldean hainbat eszenatoki ezberdinetan jardun beharko dugu hauen kontra egiteko. Akziozko multijokalari jokoa. (PC, XBoxOne, PS4).

'Sonic Mania Plus'



'Sonic Mania' jokoari hainbat hobekuntza sartuta euskarri fisikoan aterako duten bertsioa. Oraingoan, pertsonaia berriak, 4 jokalarirentzako aukera eta bestelakoak izango ditu. (PS4, XboxOne, Switch).

'MegaMan X Legacy Collection' (1 eta 2)

Bi joko hauek 1993an Super Nintendon abiatu zen 'MegaMan X' saga dute oinarri. Megaman X1, 2, 3 eta 4 lehen errekopilazioan daude eta beste laurak, Megaman X5etik X8rakoak, bigarrenean. (PC, PS4, XboxOne, Switch).

Orkatz Bidaurreta

Gasteiz, 1982

Datorren astean...

Iskander Galarreta

h!
Herri hizkeran jantzia?
Sartu eta egin aproba
herrizki aplikazioa
AKTING..
Garapena: artez
Babesleak:
url:
android:
iOS: